

## BERRI OROKORRAK

2022ko abenduaren 21ean 16. zenbakia

### IKASTOLEN TXOKOA

- **Seaskako egutegia:** Urtero bezala, SEASKA ikastolen federazioak bere egutegiak argitaratu ditu, Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Xiberoko ikastolak laguntzeko. **Prezioa 4 eurokoa da.**



### ARTEZKARITZAREN OHARRA

Kaixo Familia:

Pasa den azaroaren 24an, Udarregi Ikastolako Bazkideen Urteko Batzarra egin genuen. Azken urte hauetan familien presentzia gero eta murriztagoa izateak (3 guraso agertu ziren) gugan kezka sortu du.

Ikastolako gaiak joratzeko espazio eta une desberdinak daude, eta Batzarra gai horiek partekatzeko eta erabakiak hartzeko gune garrantzitsua da. Beraz, hurrengo ikasturteari begira eta zuen presentzia bultzatu nahian [galdetegi hau](#) prestatu dugu. **Abenduaren 22a izango da betetzeko** azken eguna.

Zuen erantzunen zain geratzen gara.

Mila esker eta ondo izan.



Udarregi Ikastolako Artezkaritza

### Jangelako oharrak

- ❖ **Menu aldaketa:** osteguneko menuan, aldaketa bat egingo da eta bazkaldarrek pasta arrautzarekin eta fruta edota turroitxoak izango dituzte bazkaltzeko.
- ❖ **Jangelaren erabilera:** ostegunean **zerbitzua erabiliko ez duten familiek** [usubil@ikastola.eus](mailto:usubil@ikastola.eus) helbidera **idatziz** jakinarazi behar dute.
- ❖ **Jangelatik bakarrik ateratzeko baimena:** jangela-zerbitzua erabiliko duten ikasleek etxera bakarrik joateko baimena duten ala ez **idatziz** jakinarazi beharko dute [usurbil@ikastola.eus](mailto:usurbil@ikastola.eus) helbidean. **Jaso ezean, baimenik ez dutela ulertuko da.**
- ❖ Hona hemen **urtarrileko** jangelako [menua](#).



## Neguko oporrak

Bihar, **osteguna**, eguerdiko **12:30ean** HH (3-6), LH eta DBHko ikasleek **neguko oporrak** hasiko dituzte; **Haur Eskolakoek**, aldiz, **abenduaren 23an**, eta horiek urtarrilaren 8ra arte iraungo dute.



## Eski irteeraren inguruko informaziorako bilera-deialdia

Eski irteerako xehetasunak zehazte aldera, izena eman duten ikasleen gurasoekin bilera egingo dugu.

- **Egun baterako irteera:** urtarrilaren 16an 16:30ean ikastolako jangelan
- **Bi egunetako irteera:** urtarrilaren 16an 17:15ean ikastolako jangelan



**Irteera datak:** egun bateko irteera urtarrilaren 28an izango da eta bi eguneko irteera urtarrilaren 21ean eta 22an.

## Appa hi!, hitanoa praktikatzeko aplikazio berria

Bost astetan hika hitz egin ahal izateko balio duen Appa Hi! Aplikazioa sortu dute Badihardugu euskara elkarteak eta CodeSyntaxek, Gipuzkoako Aldundiaren babesarekin.

Aplikazio honi buruzko informazio guztia, eta telefono edo tabletetara jaisteko moduak haien web orrian dituzue: [appahi.eus](http://appahi.eus)



# HAUR HEZKUNTZA

## Neguko festa

Bihar eguerdian **oporrak** hartuko ditugu.

Aurten DBHko ikasleek prestatuko dizkiguten **txistorra ogitartekoak** jango ditugu eta dirua beraiek egingo duten ikasturte bukaerako bidaiarako izango da. Beraz, **haur bakoitzak ABENDUAREN 22rako 1,5 euro ekarri beharko ditu.**

Ondoren, **11:45tan**, Bordatxo pareko Olentzerori abestuko diogu.

Bukatzean ikastolara itzuliko gara. Beraz, haurrak betiko lekuan eta orduan jaso behar dituzue.

Kontuan izan **baserritarrez jantzita** etorri behar dutela.



## Olentzero eta Mari Domingiren bisita Haur Eskolara

**Ostiralean**, abenduak 23, goizeko 10:00ak aldera Olentzero eta Mari Domingi Haur Eskolara etorriko dira.

2-3 urteko haurren geletara joango dira.

Haurren erosotasunerako, **EZ ekarri baserritarrez jantzita, lepoko zapia jantzita baizik.**



# LEHEN HEZKUNTZA

## LHko 1. ebaluaketako noten argitalpena

**Gaur**, 2. zikloko 1. ebaluazioko notak argitaratuko dira Alexia bitartez.



## LH 2ko familientzat oharra

Ikasturte amaieran Oriora egin behar dugun lotarako irteerako lehenengo zatiaren kobrantza **abenduaren 23an** egingo dela jakinarazten dugu. **20 euro** izango dira.



## LH 3ko ikasturte amaierako irteera

**Abenduaren 23an**, LH 3-kook kurtso amaieran egingo dugun irteeraren 1. zatiaren kobrantza egingo dela jakinarazten da. **25 euro** izango dira.



## Abenduak 22

LHko ikasle-irakasleok, **bihar** goizeko **9:30ean kalez-kale abestera** aterako gara. Ondoren ikastolan txistorra goxoa jango dugu.



## Arropa galdua

Ageri aldeko sarreran dagoen arropa galduen txokoa beteta dago. Beraz, bihar bertan dagoen arropa Caritaseko edukiontzira eramango dugu.



## Txuri Urdinera irteera

Neguko oporren bueltan Txuri Urdin izotz jauregira egingo dugu irteera. Goizeko ekintza izango da eta 12:30erako bueltan izango gara. Gogoratu, egun horretan **eskularruak** ekartzea.

<b>LH 6</b>	Urtarrilak 10, asteartea
<b>LH 3</b>	Urtarrilak 11, asteazkena
<b>LH 4</b>	Urtarrilak 12, osteguna
<b>LH 5</b>	Urtarrilak 13, ostirala



## Igeriketa-sustapenerako plana

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako programa baten barruan kokatzen da "Igeriketa-plana". Udarregi ikastolak, haurraren gan izan ditzakeen onurak kontuan hartuta, LH 2. mailan txertatzea erabaki du.

Honela bada, **LH 2B** taldeko ikasleek **urtarrilaren 9tik 30era** (biak barne) igeriketa-ikastaroa egingo dute. [Hemen](#) argibide guztiak.



# DBH

## Abenduak 22

DBHko ikasle-irakasleok, **abenduaren 22an** goizeko **10:00etan kalez-kale abestera** irtengo gara. Ondoren, ikastolan DBH4. Mailako ikasleek prestatutako txistorra goxoa jango dugu.



## DBH1-eko familientzat oharra

Pasa den astean Iruñeako Plantarium-era egin genuen irteeraren kobrantza **abenduaren 23an** egingo dela jakinarazten dugu. Garraio kostuagatik **11 euro** izango dira

